

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Eguneko Ospitale Onkologikoko instalazio berriei esker egunean lehen baino % 25 paziente gehiago artatu ahal izango dira

*Barcina Lehendakaria izan da gaur goizean NOGeko C pabiloian, hango beheko solairuan jarri baitituzte instalazio berriak*

Lunes, 09 de junio de 2014

Onkologia Medikoko Zerbitzuko eta Eguneko Ospitaleko kontsultak NOGeko C pabiloi berriztatura eramanda % 25 handituko da egunero artatu ahal izango diren pazienteen kopurua, hau da, 67 paziente izatetik 84 izatera. 2013an, 1.898 paziente artatu ziren guztira, eta 18.356 kasutan eman zen osasunlaguntza (kontsultak eta tratamenduak).



Barcina Lehendakaria NOGeko instalazio berrietan

Instalazio berriak gaur jarri dira abian, eta, gaur goizean, Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakaria izan da bertan, Marta Vera Osasuneko kontseilariarekin, NOGeko zuzendariarekin eta zerbitzu medikoetako arduradunekin, eta Francisco Arasanz Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearen Nafarroako lehendakariarekin batera.

Halaber, ekitaldian, Mercedes Chiviteren senideak ere izan dira. Duela urte batzuk hil zen bera eta 300.000 euro eman zituen NOGeko Onkologia Zerbitzurako. Hori dela-eta, itxaron-gelan plaka bat jarri dute bere omenez.

### Hirukoiztu egin da erabilgarri dagoen tokia

Arta daitekeen pertsona kopurua handitzea posible izango da orain arte A eraikineko (lehengo Nafarroako Ospitalea) B2 pabiloian egon diren gelek tokia hirukoiztu dutelako, bai kontsultetarako bai kimioterapia-tratamenduak emateko. Zehazki, terapia laburretarako (gehienez bi ordukoak) 18 besaulki ziren



NOGerako dohaintza egin zuen Mercedes Chiviteren aldeko plaka

lehen eta orain 20 izango dira, 5 gelatan banatuta, bakoitzean 4 alegia. Hala eta guztiz ere, badago aukera beste 4 gela erabiltzeko, hortaz, 36 besaulki ere jartzeko aukera egongo litzateke etorkizunean, behar izanez gero.

Tratamendu luzeagoetarako (gehienez 6 ordukoak) edo egoeraren arabera hala behar duten pazienteentzat, ohe kopurua 8 izatetik 10 izatera pasako da, 8:00etatik 21:30era.

Halaber, kanpoko kontsultetarako gelen kopuruak ere gora egingo du, 2 izatetik (gehi beste bat astean hiru egunetan) 3 izatera pasako dira, eta arretarako ordutegia ere ordubete luzatuko da. Eguneko ospitalea 2 kontsulta egitetik 3 egitera (gehi beste bat hartu gabe) aldatuko da, eta erizaintzakoak, 2tik 3ra (2 goizez eta bat arratsaldez). Instalazioetan psiko-onkologiako kontsulta bat eta ateratzeak egiteko gela bat ere jarri dira.

Zerbitzua eskaintzen jardungo diren langileen zerrendari dagokionez, beste lau pertsona jarriko dira. Zehazki, erizaintzako langileak 15 izatetik 17 izatera pasako dira, erizaintzako langileak 7 izatetik 8 izatera, eta administrazioan beste langile bat jarriko da (lehen 3, orain 4). Medikuen kopurua bere horretan geldituko da (6).

### **Pribatutasuna eta anonimatua bermatzen dira**

Tokia eta gaitasuna areagotzeaz gain, eguneko ospitalean, pazienteei harrera egin eta arreta emateko sistema bat ezarri da, SIGUE izena duen pribatutasuna eta anonimatua bermatzeko sistema. Horren bidez, paziente bakoitzak barra-kodedun txartel bat izango du, abizenen inzialekin eta historia klinikoko azken hiru zenbakiekin identifikatuko dena.

Kodea pazienteak iritsi direla baieztatzen duen gailu baten bidez irakurriko da. Itxaron-gelan dauden bitartean, emandako zenbakia eta dagokien kontsulta-gela adieraziko duten pantailen bidez deituko dira barrura. Horri esker saihestuko da osasun-langileek edo bozgorailuetatik deitzea.

Gainera, sistema horri esker, pazienteei ematen zaien arretaren prozesuko fase guztietako egitekoak sinplifikatu eta murriztu ahal izango dira (harrera, analisiak, tratamenduaren aurreko mesikuaren bisita, kimioterapiaren prestaketa farmazian eta tratamendua ematea).

### **C pabiloia**

C pabiloia berritzeko obrak 2008an hasi eta 2011n amaitu ziren, eta 23,5 milioi euroko aurrekontua baliatu zen. Lanak egitean pabiloiaren ekialdeko fatxada osoa mantendu egin da, eraikin berrian erabilita. 14.116 metro koadroko azalera erabilgarria du (17.270 metro koadro eraiki), 5 solairutan banatuta: sotoan aldagelak eta biltegiak daude; beheko solairuan, eguneko ospitale onkologikoaz gain, kirurgia anbulatoriorako eta endoskopiak egiteko 18 box jarriko dira eta digestio-aparatua miatzeko 6 areto, 2015etik aurrera; lehen solairuan ZIU berria jarri da, eta bigarren eta hirugarren solairuetan onkologiako, endokrinologiako, hematologiako, digestio-aparatuko eta erreumatologiako ospitaleratzeetarako gelak.

### **Galería de fotos**



Barcina Lehendakaria, C pabiloiko osasun-langileekin